

# **BIC BIZKAIA INKUBAGAILURA SARTZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK**



## 1. Xedea

Oinarri hauen xedea da Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean dagoen BIC BIZKAIA inkubagailura sartzeko arauak ezartzea. Parkearen espezializazio-sektoreak honakoak dira:

- Manufaktura aurreratua eta teknologia garbiak
- Bio / Mikro / Nanoteknologia

Oinarri hauetan jaso diren neurrien helburua da enpresa-proiektuen sustatzaileei, startup-ei eta enpresei babesa ematea BIC BIZKAIA inkubagailuan kokatu eta beren enpresa-jarduera han garatu nahi badute, edo/eta aipatutako sektoreen esparruan hazteko potentzial handia duten proiektu berritzaileak garatzeko.

Horretarako, startup-entzat erabilgarri jarri da Enpresa-esparru hau, beren proiektuak toki egoki batean eta inguru apropos batean gara ditzaten, merkatura inguru lehiakor batean bizirauteko adina ezagutza eta trebeziarekin irtetea ahalbidetzen dien heldutasun-maila lor dezaten.

Bestalde, enpresa finkatuentzat BIC BIZKAIA esparrua erabilgarri jartzen da aldi batez bertan koka daitezten eta beren hazkuntza susta dezaten. Era berean, enpresa horien eta startup-en arteko lankidetzak bultzatu eta sustatu nahi da, enpresa horiei beren hasierako faseetan lagunduz.

Helburu horrekin, zentroan kokatutako proiektuen garapenean eta azelerazioan edo/eta inkubagailuaren beraren eginkizunak betearazten laguntzen duten bestelako entitate eta erakunde batzuk bertan kokatzea bultzatuko da.

## 2. Onuradunak eta inkubagailura sartzeko baldintzak

### 2.1. Onuradunak

Enpresa berri bat sortzeko proiektu berritzaile bat, BIC BIZKAIA inkubagailuaren jarduera-arloen barrukoa, aurkezten duten **ekintzaileak**.

#### **Startup-ak:**

- . Manufaktura aurreratuko enpresak eta teknologia garbidun enpresak: 4 urtetik beherako antzintasuna duten erakundeak.
- . Bio, nano eta mikroteknologiaren arloko enpresak: 6 urtetik beherako antzintasuna duten erakundeak.

#### **Enpresa finkatuak:**

1. Manufaktura aurreratuko enpresak eta teknologia garbidun enpresak: garapen-proiektu berritzaile bat dutenak, hazteko potentziala daukatena, 4 urteko baino gehiagoko antzintasunekoak, eta gainera, inkubagailuan kokatutako beste enpresa batzuen alde babes-funtzioak egin ditzaketenak, baita enpresa traktore-funtzioak egin ditzaketenak ere.
2. Bio, nano eta mikroteknologiaren arloko enpresak: garapen-proiektu berritzaile bat dutenak, hazteko potentziala daukatena, 6 urteko baino gehiagoko antzintasunekoak, eta gainera, inkubagailuan kokatutako beste enpresa batzuen alde babes-funtzioak egin ditzaketenak, baita enpresa traktore-funtzioak egin ditzaketenak ere.

Ekimen hauek guztiek izaera berritzailea duten produktu eta zerbitzuak eskaintzera bideratuta egon behar dute edo horrelako produktuak edo zerbitzuak izan behar dituzte, merkatu global batera bideratuta egon behar dute eta BIC BIZKAIA inkubagailuaren jarduera-arloetakoren batekoa izan behar dute.

**Beste entitate eta erakunde batzuk**, BIC BIZKAIA inkubagailuaren jarduera-

arloekin edo haien jarduera-lerroekin duten harremanaren ondorioz, aipatutako ekimenak beren elkarrekintzan azeleratzeko potentziala dutenak.

## 2.2. Inkubagailura sartzeko baldintzak

### **Ekintzaileak:**

- . Aurrerapen garrantzitsuak barne hartzen dituen Negozio Plan bat duen proiektu berritzaile bat aurkeztea, baina BIC BIZKAIA inkubagailuko langileria teknikoak proiektu hori bideragarritzat jo behar du.
- . Administrazio Publikoarekiko betebeharrak egunean izatea, hau da, zerga- arloko exigentziak ezartzen dituzten administrazio publikoekiko betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

### **Enpresa eratuak eta startup-ak:**

1. Hazteko eta nazioarteko merkatuetara sartzeko gaitasuna duen proiektu berritzaile bat izatea eta aurkeztea.
2. Sozietateak eratuta eta erregistratuta egotea.
3. JEZe an alta eginda izatea eta helbide fiskala Bizkaian izatea.
4. Administrazio Publikoarekiko betebeharrak egunean izatea, hau da, zerga- arloko exigentziak ezartzen dituzten administrazio publikoekiko betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Pertsona juridiko eskatzaileek beren enpresa-jarduera nagusia beste eraikin batean gauzatu ahalko dute, eta BIC BIZKAIA inkubagailura negozio-lerro berri bat irekitzeko edo udalerrak hazteko potentzial handia duen proiektu berritzaile bat garatzeko sartu ahal izango dira.

## 3. Onurak

### 3.1. Instalazioak

- Okupazioa, errentamendu-erregimena, lanerako esparru batena (edo modulu batena baino gehiagorena) BIC BIZKAIA inkubagailuan.
- Laborategi komunitaria edo/eta laneko tailer komunitaria sartzeari, sartzeko eskabidean edo/eta beren egonaldian eskatu badute.
- Esparruetara sartzeko lehentasuna izango da bilerak, erakusketak, foroak eta bestelako dinamizazio-jarduerak batzuk egiteko.

### 3.2. Zerbitzuak

- Proiektuaren tutorizazioa. Tutorizazioak Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, SPRIK nahiz Beazek erabiltzaileentzat enpresak sortzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko martxan jartzen dituen babes programa eta zerbitzuetara sartzeko laguntza barne hartu ahalko du.
- Zentroan antolatu diren doako dinamizazio- eta azelerazio-jardueretan parte hartzeko lehentasunezko sarbidea, eta deskontu garrantzitsuak, doakoak ez direnetarako.
- Enpresek beren sozietatearen helbidea BIC BIZKAIA inkubagailuan izan ahalko dute bertan kokatuta dauden bitartean.

### 3.3. Egonaldiaren iraupena

BIC BIZKAIA inkubagailuko gehieneko egonaldia honakoa izango da:

**Ekintzaileak:** Hasierako iraupena urtebetekoa izango da, eta urtero luzatu ahal izango da, helburuak eta adierazleak berrikusita, gehienez ere 4 urtera arte.

**Startup-en eta enpresen kasuan:**

- Eskaera egin den unean startuptzat jotzen diren enpresen kasuan,

egonaldiaren gehieneko epea **8 urtekoa** izango da, start up aldia nahiz finkatu gisako aldia barne.

- Eskaera egin den unean finkatutzat jotzen diren enpresen kasuan, egonaldiaren gehieneko epea **6 urtekoa** izango da.

Egonaldi horri dagokionez, urtero zentroan kokatuta dauden proiektu guztien ebaluazioa egingo da, haien jarraitutasuna baloratu eta onartzeko. BIC BIZKAIA inkubagailuaren Zuzendaritza Kontseilua arduratuko da ebaluazio hori egiteaz.

Zentzu horretan, urteroko balorazio hori ez bada positiboa, litekeena da errentamendu-kontratua ezeztatzea.

Aparteko kasu batzuetan, BIC BIZKAIA inkubagailuaren Zuzendaritzak alde aurretik eskatuz gero eta Zuzendaritza Kontseiluak onartzen badu, egonaldiaren baldintza espezifikoak aldatu ahal izango dira.

## 4. BIC BIZKAIA inkubagailura sartzeko prozedura

### 4.1. Eskaera

Zentroko esparru eta zerbitzuetara sartzeko prozedura deialdi irekian egingo da Oinarri hauek indarrean dirauten bitartean.

Interesdunek beren eskaera BIC BIZKAIA inkubagailura bidali beharko dute BIC BIZKAIA inkubagailuaren web orrian ([www.bicbizkaia.eus](http://www.bicbizkaia.eus)) eskuragarri dagoen formularioaren bitartez.

Interesdunei informazio osagarria eskatu ahaliko zaie, eta elkarrizketa bat ere egin ahal izango da proiektua hobeto ulertzeko.

### 4.2. Hautaketa-irizpideak

Zentrorra sartzeko, nahitaezkoa izango da balorazio positiboa lortzea ondorengo irizpide hauetako bakoitzean:

- Eskaintzen diren produktuen eta zerbitzuen izaera berritzailea.
- Enpresa-proiektuaren egungo garapen-maila.
- Produktu eta zerbitzu hauek xede duten nazioarteko merkatuaren potentziala.
- Proiektuek jarduera ekonomikoa eragiteko eta lana sortzeko duten potentziala.
- Talde sustatzailearen irmotasuna eta gaitasuna.
- BIC BIZKAIA inkubagailuan dagoeneko ezarrita dauden proiektuekin lankidetzak bultzatzeko duten potentziala.

### 4.3. Eskaeren balorazioa

Eskaera hauek BIC BIZKAIA inkubagailua kudeatzen duen langileria teknikoak izapidetuko ditu; horretarako, Txosten tekniko bat egingo du, eta proiektuaren harira espero diren datuak barne hartuko ditu, baita dagokion kalifikazioa eta proposatutako egonaldia ere.

BIC BIZKAIA inkubagailuaren Kudeaketa-batzordeak txosten horiek aztertuko ditu, eta Onarpen-batzordera bidaliko duen proposamen bat egingo du, eta azken horrek bere kide gehienen bitartez hartuko du erabaki bat.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta jakinarazpen horrekin batera, egokia bada, kasuan kasuko lagapen-hitzarmena sinatzeko epea ere adieraziko zaie.

Eskaerak sarrera-ordenaren arabera ebatziko dira, zentroko tokien erabilgarritasunaren arabera.

Onarpen-batzorde honek adituen aholkularitza izan ahalko du aurkeztutako proiekturako beharrezkoa denean.

## 5. Dokumentazioa

Planteatutako eskaeraren onarpena aztertzeko eskatzaileek erantsi beharko duten dokumentazio komuna honakoa izango da:

- Sartzeko eskaera.
- Negozio-plana.
- Talde sustatzailearen Curriculum Vitaea.

Gainera, startup-en, enpresa finkatuen eta bestelako erakundeen kasuan, honakoa erantsi beharko da:

- Azken hiru ekitaldietako balantzeak eta emaitzen kontuak (horrelakorik izanez gero).
- Sozietatearen eraketa-eskritturaren kopia eta IFK.

## **Oharra**

Eskaera egiteko inprimakia eskatzaileentzat eskuragarri egongo da oinarri hauek onartzen direnetik aurrera [www.bicbizkaia.eus](http://www.bicbizkaia.eus) web orrian.

Eskabideak, baldintza guztiak behar bezala beteta eta atal honetan aipatzen den derrigorrezko dokumentazio guztiarekin batera, telematikoki aurkeztu beharko dira webaren bitartez.

Interesdunek eskabideak aurkezteak Oinarri hauen edukia onartzen dutela esan nahiko du.

Proiektuek baldintza guztiak bete behar dituzte eta beharrezkoa da enpresei eskatzen zaien derrigorrezko dokumentazio guztia entregatzea eskatutako eremura sartu baino lehen.

Eskaerak jaso ondoren, eskaerak ez badaude behar bezala eta guztiz beteta edo ez badira nahitaezko dokumentazio guztiarekin batera aurkeztu, interesdunei eskatuko zaie falta dena bete dezatela edo derrigorrezko dokumentuak erants ditzatela, eta horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute; era berean adieraziko zaie ez badute hori egiten eskaera bertan behera uztea erabaki dutela ulertuko dela eta espedientea izapide gehiago egin gabe artxibatuko dela, eta BIC BIZKAIA inkubagailuak ez du derrigorrez eskabide horren inguruko berariazko ebazpenik



eman beharko.

Kasu guztietan aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidetzeko beharrezkotzat jotzen den bestelako argibide eta/edo agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango zaizkie eskatzaileei.

## 6. Errentamendu-kontratua

Proiektu bat hautatu ondoren, esparrua okupatu baino lehen, eta derrigorrezko dokumentazioa entregatu ostean (Erantzukizun Zibileko Aseguru baten kontratazioa barne), Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeak, hitzarmena sinatu baino lehenago BIC BIZKAIA inkubagailuaren zuzendaritzaren oniritzia lortuz, onuradun bakoitzarekin errentamendu-kontratua sinatuko du. Kontratu horren eredia Zuzendaritza Kontseiluak onartu du. Kontratuan esparruaren lagapena arautzen duten baldintza orokorrak nahiz partikularrak jasoko dira.

## 7. Erantzukizun zibileko aseguru

Kontratua sinatzeko, onuradunek Erantzukizun Zibileko Aseguru bat kontratatu beharko dute jardueran aritzearen, instalatutako mekanismoen funtzionamenduaren eta abarren ondorioz esparru okupatuan, instalazioetan eta elementu komunetan nahiz hirugarren pertsoneri edo BIC BIZKAIA inkubagailuko beste erabiltzaile batzuei eragindako kalte pertsonalak eta materialak estaltzeko. Gainera, kontratatutako aseguru-polizaren kopia bat entregatu beharko da eta hitzarmenak indarrean dirauen aldian zehar, dokumentu bidez justifikatu beharko da urteroko primen ordainketa.

## 8. Egonaldiaren erregimena

### 8.1. BIC BIZKAIA inkubagailuaren enpresa-esparruen erabilerarekin lotutako arau komunak

- . Esparrua erabiltzeko eskubidea pertsonala da eta ezin zaio beste inori

transferitu, hau da, ezin da osorik edo zati batean alokatu edo laga, ezta dohainik edo akzidentalki ere.

- . Beren jarduera martxan jartzeko eta garatzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen administratibo guztiak izan beharko dituzte, arlo horretan indarrean dagoen araudiari jarraiki.
- . Errentamendu-kontratua esparruaren lagapena jakinarazten denetik hilabete bateko epean sinatuko da, gehienez ere.
- . Beren jarduera gehienez ere hilabete epean jarri beharko dute martxan lagatako esparruan, errentamendu-kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita.
- . Esparrua benetan erabilia mantendu beharko dute; aparteko kasuetan, eta proposamen arrazoitua aurkeztu ondoren, BIC BIZKAIA inkubagailuaren Zuzendaritza Nagusiak BIC BIZKAIA inkubagailuaren Zuzendaritza-batzordeari esparruaren erabilpena aldi batez lagatzea eskatu ahal izango zaio.
- . Esparruaren erabilpena behin betiko uzten bada bertan behera, esparrua entregatu zen baldintza beretan itzuli beharko da.
- . Dagokion esparruan egonaldia bukatu ondoren, onuradunak bere jabetza guztiak handik atera beharko ditu, eta esparrua jaso zuen baldintza beretan itzultzeko moduan utzi beharko du. Ez bada adierazitakoa egiten, BIC BIZKAIA inkubagailuaren Zuzendaritza Nagusiak jabetza horiek baztertu egin ahalko ditu, eta egonaldia bukatzen denetik 3 hilabete epea igaro ondoren, suntsitu egin ahalko ditu.

## 8.2. Elementu komunak eta ordutegia

### **Elementu komunak:**

Elementu komuntzat jotzen dira beren izaeragatik lagapendunek modu komunean erabili eta aprobetxa ditzaketen guztiak, edo erabilpen orokorrekoak direnak.

Errentariak elementu komunak erabiltzeko eskubidea dute, baina besteei elementu horien erabilpena eragozteko saihestu beharko dute, BIC BIZKAIA inkubagailuak

ezartzen dituen araei jarraiki erabili beharko dituzte, eta BIC BIZKAIA inkubagailuak ebatziko ditu honen harira sortzen diren gatazkak.

#### **Ordutegia:**

BIC BIZKAIA inkubagailuaren ordutegia honakoa izango da: astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik (itxita egongo baita), 07:30etik 19:30era.

Hala ere, BIC BIZKAIA inkubagailua egun osoan zehar erabilgarri dago Zentroan lan egiten duten pertsonentzat, horretarako sortutako sarrera-sistema baten bitartez.

### **8.3. Lagapendunei eskainiko zaizkien zerbitzuak**

BIC BIZKAIA inkubagailuak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko, lagapendunei zerbitzu hauek eskainiko zaizkie:

- Eremu komunen garbiketa eta mantentzea
- Berogailua
- Ura
- Aire girotua

Errentari guztiek jasoko dituzte sartzeko bi txartel. Txartel gehiago behar izanez gero, eraikina kudeatzeaz arduratzen den erakundeari eskatu beharko zaizkio. Hitzarmena ezeztatu ondoren, lagapendunak bere eskuetan dituen txartel guztiak entregatu beharko ditu.

#### **Beste zerbitzu batzuk:**

Edozein errentarik eskatu ahalko dio BIC BIZKAIA inkubagailuaren zuzendaritzari zerbitzu berriak eskaintzeko eta egokitzapenak egiteko. Zentroaren zuzendaritzak Zuzendaritza-kontseiluaren aurrean aurkeztuko ditu eskaerak, eta eskaerak behar bezala aztertu ondoren, egokitzapenak egiteko baimenak ematearen edo eskaintzearen gaineko erabakia hartuko du, baita erabiltzen dituzten lagapendunen ezarpenaren eta mantentzearen kostuaren ondorioak ere.

## 8.4. Lagapendunek ordainduko dituzten kuotak

Errentari bakoitzak esparruaren errentamenduari dagokion kuotaz arduratzeko betebeharra izango du. Zenbatekoak (BEZik gabe) dokumentu honen I. eranskinean zehaztu dira.

Kuota hori fakturatzeko modua kasuan kasuko errentamendu-kontratuan zehaztuko da.

## 9. Onuradunen betebeharrak orokorrak

### 9.1. Onuradunen betebeharrak

- Bere eginkizunetan aritzean, eskatzen dioten informazioa ematea, Programa honen xedeari dagokionez.
- Puntualki informatzea BIC BIZKAIA inkubagailuarekin hitzartutako baldintzen harira edozein aldaketa badago.
- Instalazioak behar bezala erabiltzea, baita elementu komunak eta izaera indibidualako gutxieneko zerbitzuak ere.
- Eremu partikular bakoitzaren segurtasuna eta garbitasuna kasuan kasuko errentarien ardura izango dira.
- Eta, oro har, Oinarri hauetan adierazten diren guztiak ere bai, baita lagapen-hitzarmenean adierazten diren betebeharrak ere.

### 9.2. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea

Errentariak Laneko Arriskuen Prebentziorako araudi orokorra bete beharko dute, baita Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeak eta BEAZek zehaztutakoa ere.

### 9.3. Tabakismoaren kontrako Osasun-neurriei buruzko Legea

Tabakismoaren Kontrako Osasun-neurriak ezartzen dituen eta Tabakoaren salmenta,

hornikuntza, kontsumoa eta publizitatea arautzen duen Legea betearazteko (28/2005 Legea, abenduaren 26koa), eta Droga-menpekotasunaren arloko Prebentzioari, Laguntzari eta gaiaren sarrerari buruzko Legearen hirugarren aldaketa egiten duen Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 3ko 1/2011 Legea ere betearazteko, ezin izango da erre Zentroaren instalazioetan, ez oinarri hauen arabera lagatzen diren lan-esparruetan, ez instalazioen elementu komunetan, aire zabaleko inguruetan izan ezik, horrelakorik balego.

#### 9.4. Ez betetzea eta ondorioak

Hitzarmenaren ez betetzea eta horren ondoriozko ezeztapena BIC BIZKAIA inkubagailuaren Zuzendaritza-kontseiluaren Ebazpenaren bidez adieraziko dira. Ebazpen hori baino lehen, BIC BIZKAIA inkubagailuaren Zuzendaritza Nagusiak gaiaren inguruko txosten bat egingo du.

Hitzarmena errentariak derrigorrezko ordainketak egin ez izanaren ondorioz ezeztatzea ebazteko, nahikoa izango da hori gertatuko dela ohartaraztea betebeharra bete ez duenari kasuan kasuko kuota estreinakoz ordaintzen ez duenean.

## 10. Dispentsa

Xedatutakoari jarraiki, BIC BIZKAIA inkubagailuaren Zuzendaritza Kontseiluak, inkubagailuaren Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuz eta lehenbizi txosten teknikoa egin ondoren, modu arrazoituan salbuetsi ahalko ditu, aparteko kasu batzuetan, oinarri hauetan ezarritako baldintza edo gutxieneko baldintza bat edo gehiago.

Salbuespen horiek aldi berean beste faktore konpentsatzaile batzuk betetzen diren kontuan hartuz orekatu beharko dira, adibidez, zerbitzu osagarriak eskaintzea eta instalazioen, zerbitzuak eta eragin ditzakeen hobekuntzen baterako balorazioa.

Salbuespena egiteko eskatzeko, eskaera-idazkiarekin batera kasuan kasuko

salbuespena justifikatzen duten dokumentuak ere aurkeztu beharko dira.

## I. eranskina: Lagapendunek ordainduko dituzten kuotak

2025an zehar, hilero ordaindu beharko diren kuotak honakoak dira (BEZik gabe):

<b>Inkubazioa - Incubación</b>	<b>Alokairua - Alquiler</b> <b>€/m<sup>2</sup>/hilabetero</b> <b>€/m<sup>2</sup>/mes</b>
<b>0 solairua - Planta 0:</b>	
Finkatua. Consolidada	8,22
Star-up	4,87
Berrikuntza. Innovación	8,22
<b>1go Solaitua. Planta 1:</b>	
Finkatua. Consolidada	9,74
Star-up	5,96
Berrikuntza. Innovación	9,74
<b>Errekargua. Recargo:</b>	
Tailer komunak. Talleres comunes	10%
Laborategi komunak. Laboratorios comunes	10%
<b>Garajeak. Parcela garaje</b>	
20,94 euro/hilabetero/mes	

<b>Inkubazio - Incubación</b>	<b>Alokairua - Alquiler</b> <b>€/hilabetero/mes</b>
<b>Ekintzaile Gela. Sala Promotores</b>	<b>37,84</b>
<b>Plus Laborategia / Plus Laboratorio</b>	<b>50,50</b>